

DIRU-ITURRIAK:

Gure enpresa Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean arituko den erakunde publiko eta gizarte-balioko zerbitzu bat izango da. Gure helburu nagusia ez da irabaziaz maximizatzea, baizik eta biztanleriaren ongizatea hobetzea eta ingurumenaren kutsadura murriztea. Horretarako, aparkalekuen erabilera efizientziari esker, hiriko trafikoaren dentsitatea arinduko dugu, baita autoen zirkulazioa eta geldialdiak minimizatuz kutsadura ere.

Eusko Jaurlaritzak zerbitzuaren kostuak finantzatuko ditu, baina horrek ez du enpresaren irabaziaz ekarriko, kostuak asetzea baizik. Hau da, gure app-aren bidez hasierako inbertsioaren dirua eta kostuak balantzatu nahi ditugu. Erabiltzaileek aparkalekuak erreserbatzeko ordainduko duten tarifa sinple batek sostengatuko ditu funtzionamendu gastuak, eta horrek konpromiso bat dakar guztiontzat, erreserbak zentzuz eta arduraz egiteko.

Gainera, sistema hau erabiltzen dutenei babesa eta bermea eskaintzeko, isun-sistema bat garatu dugu. Sistema honen bidez, norbaitek ezarritako arauak urratzen baditu (adibidez, erreserbatu gabe aparkatzea edo baimendutako denbora gainditzea), isuna ezarriko zaio. Bildutako diruaren %92-a izorratutako erabiltzaileari ordainduko zaio eta gainerako %8-a Eusko Jaurlaritzari, beste proiektu publikoetan inbertitzeko aukera emanez.